

«Utzikeriak utzi eta gure hazia ereiteko ordua iritsi da»

GORKA EGIA
AHOLKULARIA

Orenda indarrak planetaren egoeraz
«kezkatuta» 'Ekologista naiz baina...' liburua argitaratu du, eta Durangoko azokan izango da aurkezten // 5

**Planto egitera
deitu dute
LAB
sindikatu
ordezkariak** // 6

**Adingabe bat
bortxatzeagatik
hiru urte eta
erdiko espetxe
zigorra** // 2



IRURA

XAREAK 100 URTE

Irura eta xarearen arteko loturak ehun urte bete ditu, eta herriko eragileek hainbat ekitaldi antolatu dituzte datozen egunetarako; egun nagusia abenduaren 14a izango da, goi mailako partidak ikusgai izango direlarik // 7

IMANOL GARCIA LANDA

LIZARDI
inmobiliaria

www.inmolizardi.com
San Frantzisko ibilbidea, 41 A behea
Tolosa 943 65 11 22



110.000€

TOLOSA - Larramendi / VPO: Sukalde, egongela terrazarekin, logela eta bainugela. Garajea eta trastelekua.



99.500€

TOLOSA - Rondilla / Tasatua: Sukaldea-egongela, logela eta bainugela.



230.260€

IBARRA - Arantzazuko Ama / Estrenatzeko pisua: 3logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela.

Adingabe bat bortxatu izanagatik hiru urte eta erdiko espetxe zigorra

2017. urtean gertatu zen, kalderero eguneko goizaldean, Tolosako etxebizitza batean; espetxe zigorraz gain, 15.000 euroko kalte ordaina eman beharko dio biktimari



Protesta jendetsua ekarri zuen, 2017ko otsaileko eraso matxistak, Tolosako Plaza Zaharrean. ITZEA URKIZU

Erredakzioa

Duela bi urteko inauterien atarira jo behar da, atzo bertan Tolosako epaitegian izan zen auziaren jatorria itzultzeko. Otsaila zen, kalderero gaua, eta 16 urteko emakume batek 20 urteko gizonazkoa salatu zuen, etxebizitza batean bortxatu egin zuela azalduz. Bada, akusatua onartu egin du Fiskaltzak egindako hiru urte eta erdiko espetxe zigor eskaria. Hasieran bederatzi urte eskatzen bazituen ere, azken eskarian ia sei urte gutxiago eskatu zituen. Espetxe zigorrarekin batera, 15.000 euroko kalte-ordai-

na eman beharko dio biktimari. Horietatik, 6.000 euro dagoeneko eman dizkio. Horrez gain, zigorra bete ondoren bost urtez egongo da zaintzapeko askatasunean, eta hamairu urtez izango du debekatua adingabeari hurbiltzea.

Fiskaltzaren salaketa idatzia- ren arabera, zehazki 03:30ean gertatu zen eraso. Gizonezkoak 20 urte zituen orduan, eta bere etxebizitzara joan zen 16 urteko neskarekin. Behin etxebizitzan zeudela, sexu harremanak edukitzen hasi ziren, eta neskak onartu egin zituen «hasiera bate-

an». Fiskaltzaren idatziak zehazten duenez, «sexu harremana edukitzen ari zirela, salatzaileak akusatuari azaldu zion, ez zuela jarraitu nahi. 'Gelditzeko' eskatu zion, eta argi utzi zuen ez zuela jarraitu nahi. Akusatua 'ez zion kasurik egin eta jarraitu egin zuen'. Orduan, nerabea eraso gelditzen saiatu zen, 'indar fisikoa erabiliz', baina 'ez zuen bere helburua lortu'. Gertakariaren ondoren, etxera bidea hartu zuen 16 urteko emakumeak, eta bere amari kontatu zion gertatutakoa. Egun horretan bertan jarri zuen salaketa.

EH Bilduk deitutako manifestaziorako autobusak

POLITIKA // Euskal Herria Bilduk manifestaziora deitu ditu herri-tarrak, bihar, 12:00etan, Bilboko Bihotz Sakratutik. *Aurrera egiteko Euskal Errepublika!* leloa aukeratu dute martxarako, eta Tolosaldeko EH Bilduk autobusak antolatu ditu. Eskualdean, izena emateko aukera dago honako herrietan, ohiko lekuetan: Adu-na, Alegia, Altzo, Amezket, Anoeta, Asteasu, Berastegi, Bidadia-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Leaburu, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil.

Gaur iluntzean piztuko dituzte Gabon argiak

GABONAK // Gaur iluntzean piztuko dituzte Gabonetako argi apaingarriak, Tolosan, tokiko merkataritza sustatzeko helburuz. Aurten, lehenengo aldiz, herriko talde batek izango du horretarako ardura: Tolosa CF taldeko Gimnastika Erritmikoko neskek. Ekitaldia 19:00etan izango da, Gaztelako atean.

Diru laguntzak aurkeztzen ikasteko tailerra

EKONOMIA // Tolosako taldeei zein elkarteei zuzenduta, *Diru laguntzen kudeaketarako gaitasun tailerra* antolatu du Tolosako Udalak. Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Diru laguntzak aurkezteko zein jarraitu beharreko pausoak ezagutuko dituzte, abenduaren 9an, 13an, 16an, eta 20an, kultur etxean, 17:00etatik 20:00etara. Gaur izango da izena emateko azken eguna, gizartezerbitzuak@tolosa.eus edo saregintza@saregintza.org helbideetan.

Berazubi estadioko zedroak mozten ari da udala

Atletismo pistan sortzen duen arriskua dela eta, atzo ekin zioten zuhaitzak mozteari; bidea itxita izango da 18:00ak bitarte

Erredakzioa

Tolosako Berazubi estadioko zedroak mozten ari da, egunotan, Tolosako Udala. Zuhaitzek oztopoak sortzen zituzten atletismo pistan eta, horrez gain, korrikalarien segurtasuna ere arriskuan zegoen, zuhaitzak hazten joan diren heinean. Hori dela eta, atzo hasita, lorezaintza enpresa batek egindako txostena oinarri hartu, eta atzo ekin zioten zedroak mozteari.

Aipaturiko txostenak dio, zuhaitzak hasieratik gaizki landatuta daudela: «Zuhaitz hostoiraunkorrak dira, eta kirol instalazioaren hegoaldean daude landatuta. Horrek pistaren zati horretan eguzkiak jotzea eragozten du, eta, ondorioz, goroldioa eta hezetasuna sortzen da. Gainera, zedroa azikula eta pinaburu asko botatzen duen koniferoa da, eta horrek arazo bat sortzen du atletismo pistan, zorua irris-takor egotea eragiten baitute».

Udalak azaldu duenez, nola Tolosa CF elkarteak, hala Gipuzkoako Atletismo Federazioko epaileek, behin baino gehiagotan azaldu izan dituzte gaiaren inguruko kezak, eta udalak erantzuna eman nahi izan die horiei, besteak beste, korrikalarien segurtasunaren alde.

ALDAKETAK TRAFIKOAN

Atzo hasitako lanak gaur bukatzea aurreikusi du udalak, eta horrek 08:00etatik 18:00etara bitarte Paper kaleko trafikoa itxtea eragingo du, lanak behar bezala garatu ahal izateko.

Era berean, Tolosako Hiribusaren ibibideak ere zenbait aldaketa izango ditu, eta bertan behaera geratuko dira Martin Jose Iraola kaleko eta Paper kaleko geldialdiak. Ordu tarte horretan, honakoa izango da autobusak egingo duen ibilbidea: Rondilla kaletik San Frantzisko, eta handik zuzenean Araba Etorbidera joango da, Iurre auzoko biribil-gunea hartzeko. Puntu horretatik aurrera, ohiko ibilbidea jarraituko du Hiribusak.

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintzak

Ile apaintzailea. Tolosako IRRIKA Ile-apaindegiak esperintziadun ile apaintzaile bat behar du, arratsaldetan lan egiteko, lanaldi erdian. Interes dutenek, dei dezatela 943 50 84 93 telefonora.

Garbiketa lanak. Tolosan, esperientzia duen pertsona bat behar dugu elkarre bat garbitzeko. Lanaldi erdian arikolitzateke, goizez eta arratsaldeaz (asteazkenetik astelehenera, jai egunak barne). Ezinbesteko baldintza: esperientzia izatea. Inte-

resa dutenak, jar daitezela harremanetan: 943 67 06 26.

Etxeko lanak. Pertsona bat behar da, Tolosan, etxeko lanak egiteko. Telefonoa: 688 88 82 07, 12:00etatik 15:00etara bitarte deitu.

Zaintza lanak eta etxeko lanak.

Adineko pertsona bat zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dugu, Tolosa erdigunean. As-telehenetik larunbatera egin beharko luke lan, 40 orduz. Interesa dutenek dei dezatela 600 56 207 3 zenbakira.



Asko dira alokairuan bizitzera goazenean kontuan hartu behar ditugunak; kontratua sinatu aurretik baldintza eta eskubide askoren jakitun izan behar dute, bai maizterrak, bai eta jabeak ere.

Alokairuan bizitzeak dakarrena

Leyre Carrasco

Gurasoen exea utzi behar izaten duten gazte askoren arteko kezka nagusia emantzipatzea izan ohi da. Askok erronka moduan hartzen dute, alokairuan etxebizitza batean sartzeak errespetua ematen baitie. Eta, ez da gutxiagorako, gaur egun, etxebizitza bat denboraldi baterako alokatzen dugunean, asko baitira kontuan hartu beharrekoak, eta jarraitu beharreko urratsez eta bete beharreko baldintzez ohartarazi du Arantxa Izagirre tolosar abokatuak.

Epea da etxebizitza alokatzean neurtu beharreko lehenengo ezaugarria, eta horretarako, jabea zein den ere aintzat hartzeko esan du. «Izan ere, ez da gauza bera jabea pertsona fisiko bat ala pertsona juridiko (enpresa, elkarte...) bat izatea». Hala, jabea pertsona fisikoa baldin bada, maizterrak gutxienez 5 urtez alokatu ahalko du etxebizitza. Aldiz, pertsona juridikoen kasuan, epea 7 urtera luzatuko da. Kasurik egokiena urtebete baino gutxiagoz alokatzea dela dio abokatuak, «urtebete baino gehiagorako alokatzean, denboraldi baterako etxebizitza baino ohiko etxebizitza dela ulertuko baitu legeak».

Epea eta gero, maizterrak egin beharreko gastua izango da kontuan hartu beharreko bigarren urratsa. Alde batetik bermea dago, etxea hartutako egoera berean uztea da horren helburua, eta ez errentaren ordainketa bermatzea. «Garai batean, bermea jabeak gordetzen zuen, baina duela urte batzuk, Eusko Jaurlaritzak gordetzen ditu», dio Izagirrek. Horrekin batera, bada beste aldaketa bat, izan ere, «hilabete-ko errentaren adinako bermea izan beharko luke, baina gaur egun jabeak zorrotzagoak dira eta berme handiagoa nahi izaten dutenez, bi hilabeteko bermea ere eskatzen dute». Hala ere, abokatuak argi utzi du legeak «hilabete bateko errenta soilik» eskatzen duela.

Maizterrak Eusko Jaurlaritzaren esku utzi duen berme hori,



Kontratuaren iraupenari begiratu behar zaio lehenbizi eta gastuei ondoren. REBEKA CALVO

behin kontratua amaituta, itzultzea eskatuko luke, dagozkion dokumentuak aurkeztuta.

GASTUAK

Etxebizitza alokatzean aurre egin beharreko gastuei begiratzear gain, etxebizitzak dituen ohiko gastuei erreparatzea ere gomendagarria da. Horien artean daude bizilagunen komunitateko gastuak. Arantxa Izagirre abokatuak aholkatu duenez,

«Argia, ura edota wifia bezalako gastuak, normalean maizterrak ordaintzen baditu ere negoziatu daiteke»

**ARANTXA IZAGIRRE
ABOKATUA**

gastu horiek etxebizitzaren jabearekin adostea komeni da. «Kontratuan idatzita egon behar du gastu horiek nork ordaindu behar dituen, bertan islatzen ez bada luzera arazo izan baitaite-

ke». Argia, ura edota wifia bezalako gastu arruntak kontratuak zehaztu ohi ditu noren esku doazen, eta normalean maizterrak ordaintzen baditu ere, jabearekin negoziatu daitekeela dio abokatuak.

Ohiko gastuen artean sartuko lirateke, era berean, udaletik iristen diren zergak, hala nola, zaborrarrena edota estoldarena, eta horiek ere normalean maizterrak ordainduko ditu, «etxebizitzaren erabileraren ondorio baitira».

Badira, halaber, ezohikoak edo bereziak izan daitezkeen gastuak, eta horiek etxebizitzaren jabeak ordaintzen ditu beti. «Fatxada berritzean, teilatua konpontzean edota igogailua jartzean, etxebizitzaren balioa handitzen da, eta horren etekin nagusia jabeak izango du.

Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergari dagokionean, jabearekin negoziatzea dela «ohikoena» dio abokatuak. «Gehienetan, urte

osoko ordainketa batean ordaintzen da baina legeak esaten duenez, 12 hilabetetan zatitzea posible da».

Etxebizitza aseguruia ere alokairuan etxebizitza bat hartzera goazenean kontuan hartu beharreko gastua da. «Etxean zerbait gertatuz gero, jabeak ez du zerikusirik izango gertatutakoarekin, maizterraren ardurapekoa izango da, eta horregatik gomendagarria da aseguruia egitea».

INBENTARIOA

Bestalde, etxebizitza alokatzeko kontratua idazten ari garenean, bertan dauden altzari guztiak gehigarri batean zehaztea komeni da. Jabeak, beraz, inbentario bat sortu beharko du, altzari bakoitzaren deskribapena eginez. «Maizterrari etxean dagoen altzariren bat puskatuz gero, jabea jakinaraziko dio, eta baita altzariren bat erosi duenean ere. Azken batean, etxebizitzan gertatzen den guztiaren berri jabea-

ri aitortzea da egokiena, gaizki ulertuak egon ez daitezen», dio Izagirrek.

KONTRATUAREN IRAUPENA

Pertsona fisikoa izan ala juridikoa kontratuaren gutxieneko epea 5 edo 7 urtekoa izango da. Baina, epe horretara iristean zer gertatuko da? Aukera desberdinak egon litezke egoera horretara iristean. Agian jabearen asmoa kontratua ez luzatzea izan liteke, eta kasu horretan, maizterrari bi hilabete lehenago jakinarazi beharko dio. Maizterra bada etxebizitza utzi nahi duena lau hilabeteko epearekin esan beharko dio jabeari. «Batak zein besteak ez badute ezer esaten, bere horretan jarraitu nahi dela ulertuko da, eta automatikoki luzatuko da kontratua, beste hiru urterako. Gerta daiteke, baina,

«Kontratuan idatzita egon behar dira gastu guztiak, luzera arazoak sortu baitaitezke»

**ARANTXA IZAGIRRE
ABOKATUA**

kontratuan zehaztuta geratzea maizterrak epea igarota etxebizitza utzi egin behar duela, eta kasu horretan derrigorrez utzi egin beharko luke etxebizitza», zehazten du Izagirrek. Eta, hori horrela egiteko arrazoiak desberdinak izan daitezke abokatuak azaldukoaren arabera: «dema-gun etxebizitzaren jabearen alaba edo semea ezkontzera doala eta ondoren, alokagai izan duten etxebizitza hori hartu nahi dutela. Bada, zehaztu egin daiteke alokairuan eduki nahi den tartea, eta ondoren, hutsik geratu beharko litzateke».

LEGEA BI ALDEENTZAT

Asko dira, beraz, etxebizitza batera alokairuan bizitzera joan aurretik, eta ondoren kontuan hartu behar diren ezaugarriak. «Jabeak bere etxebizitza zaintzea eta errenta ordaintzea izango du buruan, eta maizterrak, hori guztia gogoan izatea, beti ere jakinda, legeak bi aldeentzako ezartzen dituela bai ardurak, bai eta eskubideak ere».

Tolosaldeia Durangon ere

Abian da Euskal Herriko kultur sorkuntzak duen erakusleiorik handiena, gure kulturaz jabetzeko aukera paregabea da Durangoko Azoka, eta urtero moduan, Tolosaldekoak ere bertan izango dira.

Leyre Carrasco

Durangoko Azokak aurten 54. edizioa ospatuko du *Osorik DA!* lelopean Azokako osagai guztiei erreferentzia eginez. Landako gunea ateak gaurtik abenduaren 8ra arte zabalik izango ditu, eta urtero bezala, bertan hainbat erakusmahai batuko dira aurten go nobedade nagusienak publikoari erakusteko asmoarekin. Stand bakoitza mundu bat da; batzuk argialetxe handienak

dira eta beste batzuk hasiberriak diren hainbat sortzailek partekatzen dituzte.

Edizio honetako kartela Oier Zuñiga artistak (Iruñea, 1986) sortu du. Kartelarekin Azokaren ekosistema osoa irudikatu nahi izan du lau zatitan bereiziz eta ezaugarri bakoitzari erreferentzia eginez: burua (sormena), bularra (zabaldu-erakutsi), gerria (hartu eta eman) eta hankak (akzioa eta mugimendua). Autoekoizleen Plaza da Landako Gune-

ko erakusmahai berezietakoa, eta guztira 405 nobedade eskura izango diren 264 erakusmahaietz beteko da aurten, eta bertan 273 liburu, 91 disko, 16 aldizkari, 5 ikus-entzunezko eta betelako 20 berrikuntza egongo dira aukeran, besteak beste. Bestalde, 14 sortzaile ere batuko dira, disko, liburu eta ikus-entzunezkoekin.

Horietako 29 nobedade Tolosaldearekin zerikusia dute, egilea edo ekoiztetxea eskualdekoa delako.



Landako gunea abenduaren 8ra arte egongo da zabalik. ATARIA

TOLOSALDEKO NOBEDADEAK

Liburuak

Altzoko Handia eta Kutixiren amona eta Altzoko Handia eta Kutixiren malkoak. Koldo Izagirrek idatzitako testuak eta irrimarrak egindako ilustrazioekin osatutako lana. Erein argitaletxea. Haur eta Gazte Literatura.

Belardo: ba al zatoz?. Iñaki Martiarena, 'Mattin' ezizenez ezaguna den euskal komikigilearen Belardo komiki pertsonaiaren aurkezpena. Liburu eta komiki tailerra aurkeztuko du. BERRIA egunkariako Mantangorri gehigarrian argitaratzen da larunbatero Belardo komikia. Euskal Editorea, S.L.

Beti bezala, ezer ez?. Christian Volzen testua eta Xabier Olarra tolosarraren itzulpena. Pamiela argitaletxea. Haur eta Gazte Literatura.

Ekologiaren alde nago baina... nire kontsumoa ekologiaren aldekoa al da?. Gorka Egia, oreindainarrak idatziko kontsumo jasangarriak oinarritzeko gisa praktikoa bat. Liburuak, bere barnean dauden QR kodeen bidez, azalpen bideoak ikusi eta bere barnean Egiak sortutako

kantubat ere badauka. Natura eta Aisia: bidaiak, sukaldaritza...

Etxeak eta hilobak. Bernardo Atxaga asteasuarraren eleberria. Pamiela argitaletxea. Narratiba.

Euskararen bidegurutzetik. Kike Amonarriz tolosarrak idatzitako liburu. Elkar argitaletxea. Biografiak eta saiakerak.

Goliat eta izarrak. Patxi Zubizarretak idatzitako liburu. Ibaizabal argitaletxea. Haur eta Gazte Literatura.

Iluneko Argi. Juan Kruz Igerabide adunarrak idatzitako liburu. Ibaizabal argitaletxea. Haur eta Gazte Literatura.

Jainko-Jaikosen lasterketa. Mikel Valverderen testuak eta Ramon Olasagasti berrobiarraren itzulpena. Elkar argitaletxea. Haur eta Gazte Literatura.

Joana Maiz. Yurre Ugarte tolosarra da egilea. Elkar argitaletxea. Haur eta Gazte Literatura.

Leo sabanako errege. Amezketak Mikel Gurrutxagaren testuak eta Maite Gurrutxagaren ilustrazioak. Elkar. Haur eta Gazte Literatura.

Mehatxua. Garbiñe Ubeda tolosarra da egilea. Elkar argitaletxea. Haur eta Gazte Literatura.

Natur labur mintzo. Pello Zabala amezketarra da egilea. Alberdania argitaletxea. Biografiak eta Saiakerak.

Nik ez dakit zer den beldurra. Karlos Linazaroso tolosarrak idatzitako eleberria. Erein argitaletxea. Narratiba.

Tximeletak hondartzan. Maixa Zugasti tolosarraren testuak eta Aitziber Alonsoren ilustrazioak. Erein argitaletxea. Haur eta Gazte Literatura.

Zertara datoz martetarrak?. Iñaki Zubeldia ikaztegiatarra da egilea. Ibaizabal argitaletxea. Haur eta Gazte Literatura.

Arabako Errioxako eno-kultura sarea. Ballarraingo Josu Ozaita eta Edurne Urrastarazu. Arabako Foru Aldundia.

Aldizkariak

Irria 90. Eroriz ikasten da oinez. Pirritx, Porrotx eta Marimototsen al-

dizkaria. Irrien Lagunak. Haur eta Gazte Literatura.

Jakin 233-234. Jakin aldizkarian, Lorea Agirre beasaindarra eta Haritz Azurmendi albizurtarraren artikulak agertzen dira *Maitasuna politika daizenarekin*. Jakin Fundazioa.

Musika

Lau. Alos Quartet taldearen disko berria. Xabier Zeberio tolosarrak konposatutako eta moldatutako 16 piezaz osatutako diskoa da. Euskal Folklore.

Zure aurrean. Bihozkada, Villabonako taldearen disko berria. Pottoka estudioetan grabatua. Euskal pop-rock. Musika Zuzenean.

Dardara hura. Don Inorrez Tolosako Imanol Ubedaren binilozko singlea (CDa ere badu barnean). Paco Loco ekoizlearekin batera ondu dute. Pop. Musika Zuzenean.

#3. Jupiter Jon eta Amaren alabak-en diskoa, Jupiter Jonen Tolosako Baxi Ubedak hartzen du parte. Karlos Osinagak Tolosako Bonberenean grabaturik. biDeHUTS. Euskal Folklore.

After-Egon. Onki Xin Zizurkil eta Irungo taldea. Mauka diskoetxean argitaratua. Musika Elektronikoa.

Loratu. Habi taldea, Villabonako power duoaren lehen diskoa. Victor Sanchez soinu teknikariaren laguntzaz autoekoiztua eta Elkar estudioetan grabatua. Rock.

Argitalpen elektronikoak

Musua. Pirritx, Porrotx eta Marimototsek Katxiporreta ekoiztetxearen bitartez argitaratutako disko-liburu. 12 kanta eta 12 kontukantu jasotzen ditu. Antzerki Musikala.

Bestelakoak

Orainean naiz. Ikaztegiatar Maite Eizmendi yoga irakaslearen Yoga saio baten bigarren CDa. Sortze prozesua azalduko du, CDa entzunez. Auto Ekoizpena.

Bikote kartak. Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen Katxiporreta ekoiztetxean argitaratutako karta jokoa. 15 karta serie eta Buruezurra- ren kartak osatzen dute sorta. Haur Jolasak.

ORIA

BEILATOKIA
TANATORIO

Usabal Ind., 12· 20400 Tolosa
943 69 75 79
www.funerariaoria.com

zozketak

Atarikideentzat **saski bat** daukagu

Errigorako SASKI BELTZA
Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

Zozketetan parte hartzeko **Osteguna 13:00ak** arte: **943 65 56 95** edo www.ataria.eus

«Gure hazia ereiteko ordua iritsi da; ez dago utzikerietarako tarterik»

GORKA EGIA ARREGI AHOLKULARIA

Orendaindarrak 'Ekologista naiz baina...' liburua argitaratu du, eta Durango Azokan izango da.

Eneritz Maiz Etxarri Orendain

Irakasle lanak utzi eta aholkulari lanetan dabil Gorka Egia orendaindarra. Lur planetaren egoerak kezkatuta, eta ekarpen bat egin nahian lanbidez aldatu, eta orain, gizarteari eragiteko asmoz liburua idatzi du.

Herrian bertan aurkeztu duzu idatzi berri duzun liburua.

Etxean jokatzeko duzunean eroso izaten da. Ni oso gustura egon nintzen, eta eskertuta azaldu ziren herritar guztiengatik. **'Ekologista naiz baina...' liburua argitaratu duzu. Zer dago hiru puntu horien atzean?**

Uste dut gehiengo arduratuta gaudela ingurumena jasaten ari den egoerarekin. Ohartzen gara uste dut zerbait larria gertatzen ari dela, baina liburuaren kontrazalean, *nire eguneroko kontsumoa ingurumenaren aldekoa al da?* jartzen du. Hau da, oso arduratuta gaude ingurumenaren egoeraz, baina egiten dugun kontsumoa erabat inguru-

menaren kontrakoa da. Sentitu eta pentsatu, eta pentsatzen eta egiten dugunaren artean arrakala dago, eta liburuaren helburua arrakala hori murriztea da.

Kontsumo jasangarriko oinarritzko gida praktikotzat definitu duzu liburua.

Gida deitzen diot, nolabait liburuan zehar irakurlea gidatu egiten dudalako gai batetik bestera. Eta praktikoa deitzen diot, gai bakoitza jorratu ondorenean konpromiso batzuk hartzeko gonbita egiten dudalako; zure kontsumo ohiturak liburua irakurri orduko aldatzeko.

Zein atal jaso dituzu?

Lehenengo atala munduko erronken gainekoa da. Ondoren uraren gaia jorratzen da, eta energia, hondakinak eta azkenik, kontsumo arduratsua bere horretan. Aurreko gai guztiak biltzen dira bertan. Esan bezala, gai bakoitzaren bukaeran gonbita egiten dut konpromiso batzuk hartuz, gai horiei dagokienez, kontsumoa alda dezazun.

Adibiderik jartzerik bai?

Demagun, energian, bi helburu zehazten ditut. Alde batetik, erregai fosilekiko dependentzia murriztea, eta bestetik, energia gutxiago kontsumitzea. Autoaren erabilera murriztu beharko dugu, garraio publikoa erabili, energia berdea kontratatatu, ... Argindar kontsumoa jaisteko berriz, jabetu beharko gara zertan gastatzen dugun gehien, eta hor jarri beharko ditugu indarrak.

Irakurleari zer pentsatua jarriko diozu, beraz.

Bai, irakurlea zer pentsa horretan jarri nahi dut. Nik badakit ingurumenaren alde dagoela, baina bere eguneroko kontsumoak ez du hori erakusten. Nire kontraesanak jartzen ditut mahai gainean.

Zeure burua hartu duzu oinarri?

Noski, niri gertatzen zait. Ni erabat arduratuta nago ingurumenaren egoeraz, ikusirik bizitza Lur planetan desagertzera doala. Era berean, haserre nago egiten

dudan kontsumoarekin, benetan, hori delako Lur planetan bizitza egoera horretan jartzen ari dena. Nire buruari esaten diot zer egin dezakedan nik, bihartik aurrera, nire kontsumoak ez dezan erakutsi lurra suntsitu nahi dudala. Horretarako aldaketa batzuk egin behar izan ditut, eta egiten ari naiz. Behin tiraka hasi eta bukatzen ez den soka bat da. Nire kontraesan hauek jartzen dizkiot irakurleari liburuan, berak ere izango dituelakoan. Nik egindako ahaleginari besteena gehitzen badiot, eta beste askorena gehitzen bazaio, nik uste, aldaketa txiki horiek oso eraginkorrak izan daitezkeela.

Bakoitzak bere aletxo jarri behar du.

Bakoitzak gure hazia ereiteko ordua iritsi da, eta ez dago utzikerietarako tarterik. Beraz, liburuak irakurleari astindu bat eragin nahi dio.

Atal bakoitzak bideo batera eramaten zaitu. Nola osatu duzu liburua?

Testuak, bideoak eta kantu bat dago. Animazio bideo batzuk dira, eta gaiak jorratzen dira. QR kode bidez ikus daitezke. Oso ikuserrazak dira, eta testuak ere irakurterazak dira. Sentitu, pentsatu eta egiten duguneko arrakala ez da samurra, eta liburu ahalik eta atsegina egiten saiatu naiz. Munduak dituen erronkei amorrutik ez erantzuteko. Eta amaieran abesti bat dago, umore onez eta energia positiboarekin ekiteko aldaketa horiei.

Norizuzenduta dago?

Pertsona helduentzat da. Irakaslea izan naizenez askok galdetu didate, eta ez, helduentzat idatzi dut. Eginez erakutsi behar da, eta helduoi tokatzen zaigu erakustea beste modu batera eta beste kontsumo batekin bizi gaitzkeela, eta pozik.

Durango Azokan izango zara liburuarekin.

Bai, eta amets txiki bat betetzea da. Durangora beti joan izan naiz, baina beste aldetik. Ilusio handiarekin nago, eta egunero egongo naiz. Igandean, aurkezpene txiki bat ere egingo dut, 11:30ean, Egia aholkularitza proiektu berria eta liburua aurkeztuz.

Nolatan idatzi duzu liburua?

Hitzaldiak ematen ditut herritarren kontsumo ohiturak jasangarriago bilakatzeko, eta hitzaldia da liburu bihurtu dudana.

Erraza izan da?

Ez. Idazten badakigu, idazten hasten garen arte. Joana Garmendia atzean izan dut. Bere babesik eta onespenik gabe ez nintzen inoiz ausartuko argitaratzera. Eta ilustrazioak Garbiñe Arregik egin dizkit. Bideoak, aldiz, Chromak egin ditu, baina prozesu guztiaren jarraipena, eta lotura egin egin behar dira.

Eta abestiarena, nolatan?

Bertso batzuk idatzi nituen bukaera alai bat emateko. Eskerrak Juanxo Arakamak lagundu didan abestia osatzen, bestela ezin izango nuen egin. Baina polita izan da, eta ondo pasa dut.



E. MAIZ



2,2tik 7,8ra bitarteko kontsumo mistoa (L/100km). CO2 isurketak (g/km) 50etik 181era.

VOLVO XC40
BERRIA 27.200 EUROTIK*



GIDATU ZURE BIZI-ESTILOA

Ikusi autosuecia.es webgunean

Auto Suecia | Jauregui auzoa, 76. Hernani (Gipuzkoa) | **943 33 11 31**

#VolvoXC40



* Volvo XC60 Premium Edition D3 Momentum 110 Kw (150 cv) eskuzko auto abiadura aldagailua; penintsularako salneurria (Extremaduran izan ezik) eta Balear uharteetan 35.450 eurotik (BEZ, garraioa, fabrikatzailearen ekarpena, eta Kontzesionarioen Sarea eta matrikulatze zerga barne). Volvo Car Financial Services * markapean finantzatutako unitateen salneurria (Volvo Car Group) Banco Cetelem S.A.U. A-78650348-ren bidez, gutxienez 29.000 euro finantzatzeko. Gutxieneko iraupena, 48 hilabete. Gutxieneko egonaldia, 36 hilabete. S.A.U. Banco Cetelem-en onarpenari lotuta. Eskaintza 2019ko irailaren 30a baino lehen saldutako pertsona fisikoek bakarrik eragiten die. Ikusten den modeloa ez da eskaintzako bera.

Abenduaren 15etik 22ra zabalduko ditu ateak Merkatu Solidarioak

Ibarratik Misio Taldeak abenduaren 9tik 13ra egingo du merkatuan salgai jartzeko materialaren bilketa

Erredakzioa Ibarra

Urtero moduan, Ibarratik Misio Taldeak Merkatu Solidarioa zabalduko du Gabonetako egunetan, Ekuador, Honduras eta Indian dituen proiektuak diruz laguntzeko helburuz. Hain justu, abenduaren 15etik 22ra (Goizez 11:00etatik 13:00etara, eta arratsalde 17:00etatik 20:00etara, astegunez, eta 10:00etatik 14:00etara igandean) egongo da zabalik merkatua, San Bartolome Plazan elkarteak duen lokalean.

Bada, dendariei eta herritarrei deia egin diete merkatuan salgai jartzeko materiala uztera animatuz. Abenduaren 9tik 13ra herriko plazako lokalera bertara eman beharko da materiala, 17:00etatik 20:00etara. Lagundu nahi dutenentzat bi telefono zenbaki ere utzi dituzte, 650 416 949 (Marian) eta 678 844 539 (Juanma).

Ibarratik Misio Taldeak eskerak eman nahi dizkie orain arte eta aurrean ere lagunduko duten norbanako nahiz dendariei, baita, «hiru misioetako sendien ize-nean ere, horrela egiten baita posible laguntasun proiektuak aurrera ateratzea». Era berean, beste urteetan egin moduan, kontu korrante zenbakia (2095 5043 97 1062974919) ere jarri dute eskura laguntza diruz emateko.

LAB-eko ordezkariak planto egitera deitu dute urtarilaren 30ean

Lan baldintza, pentsio eta bizitza duinak bermatuko dituzten 30 neurriren Aldarrikapen Taula izenekoa adostu dute; ofentsibara jotzeko greba dela adierazi du sindikatuak



Buruntza, Goierri eta Tolosaldea eskualdeetako LAB-eko ordezkariak atzo Ibarra eginiko agerraldian. ASIER IMAZ

Asier Imaz

Urtarrilaren 30erako greba deitu du Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak. LAB-eko ordezkariak bat egin dute deialdiarekin, eta herritarrek egun horretan planto egitera deitu dituzte.

«Hego Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduak bi urte daramatza pentsio duinen alde atera mobilizatzen: bide horretan, pentsioen eremuaz gaindi, modu zabalagoan planto egiteko beharra plazaratu dute, beraien aldarrietatik harago joateko asmoz»,

adierazi dute Buruntza, Goierri eta Tolosaldea eskualdeetako LAB-eko ordezkariak eginiko agerraldian. Egoera hori ikusita, LAB-eko ordezkariak «beharrezkoa» iruditua zaie jauzi bat ematea, «lan baldintza, pentsio eta bizitza duinaren aldeko borrokan».

Hala, «konbentzimendu» hiru koitz batek batzen dituela azaldu dute: «batetik, pentsioena denon afera delako, oraingo pentsiodunena nahiz etorkizunekoena; bestetik, lan baldintza duinen aldeko borroka ezinbestekoa da, eta azkenik, eskubide sozialak ber-

matu behar dira». LAB-en esanetan, urtarilaren 30eko greba orokorra lan, pentsio eta bizi duinaren aldeko greba izango da: «Bizi baldintzak duintzeko eta aberastasunaren bidezko banaketa baten aldeko greba izango da, ekonomia fase berriari harresi bat jartzeko, patronala eta erakundeak interpellatzeko eta demokrazia eta burujabetzaren bidean aurrera egiteko». LAB-en ustez, ez da erantzun bat emateko greba izango, «ofentsibara jotzeko greba baidir».

Sindikatuak ordezkariak esan

ALDARRIKAPEN TAULA

Adostutako puntuetako batzuk

Soldata. 1.200 euroko gutxieneko soldata.

Pentsioa. 1.080 euroko gutxieneko pentsioa.

Lan astea. 35 orduko lan astea.

Arrakala. Soldata eta pentsio arrakalaren aintza.

Erreforma. Pentsio eta lan erreforma bertan behera geratzea.

Hemendik. Madrilgo inposaketan aurrean, hemen erabakitze eskubidea.

dutenez, krisiaren aitzakian, azken hamarkadetan azkartu den lan eta bizi baldintzen prekarizazioari mugak jartzea erabaki dute, eta lan baldintza, pentsio eta bizitza duinak bermatuko dituzten 30 neurriren Aldarrikapen Taula izenekoa adostu dute. Taula horretan gutxieneko soldata eta pentsioa, lan asteak izan beharko lituzkeen orduak, soldata eta pentsio arrakala edota lan erreformabertan behera uztea dira irakur daitezkeen puntuetako batzuk.

HEMEN ERABAKITZEKO

Urtarrilaren 30ean «langileen erabakitze eskubidearen defentsan» irtengo direla kalera azaldu dute LAB-etik. «Hemen erabaki nahi ditugu lan harremanak edo pentsio sistema, Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparruaren aldeko greba izango da», azaldu dute.

«Borrokak merezi duela azpimarratu nahi dugu», esan du LAB-ek. «Borrokaren bitartez eskubideak eskuratzen ditugu; borrokaren bitartez austeritate politikak eta patronalak prekarizaziorako duen grina gelditu ahal dugu. Urriaren 30ean, zalantzarik gabe, Euskal Herriak planto egingo du», esanaz deitu dituzte LAB-eko ordezkariak herritarrek bat egitera.

Hilberriak eta urteurrenak



Justo Mujika Agirre

(Filo Heceren alarguna)

Nekez uzten du bere sorterria sustraiak han dituenak.

Nekez uzten du bere lurra zuhaitzak, ez bada abaildu eta oholetan. Ez zaitugu berehala ahaztuko aitte. Beti egongo zara gure bihotzean.

SARA, IÑIGO, SUGAAR ETA SAOIRSE

IDIAZABAL, 2019ko abenduaren 5ean

hilberriak • eskertzak • urteurrenak

**ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN**

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 64mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Asteasuko lehia izango dira Inaxio Perurena eta Joseba Ostolaza

Erredakzioa Asteasu

Abenduaren 22an, Asteasuko pilotalekuan, 200 kiloko harri errektangularrarekin txapelketa jokatu da, 12:00etan. Azken urteetan, Harri Handien Euskal Herriko Txapelketa jokatu ohi zen Asteasun, baina aurten, Azpeitira eraman dute. Asteasun geratu den hutsune hori betetzeko, duela ia 30 urte Goenatxo I.ari egindako omenaldiaren harira jokatu zen txapelketa berreskuratzea erabaki dute.

Parte hartzaileen zerrenda ikusita, bi izen nabarmendu daitezke: Inaxio Perurena eta Joseba Ostolaza. Azken hau Goenatxo I.aren omenaldi hartan izan zen. Ostolazak esfortzu bat egin nahi izan du eta txapelketan egongo da. Inaxio Perurenaren parte hartzeak zalaparta sortu du herri kirolen munduan, bere lehen txapelketa izango baita. «Harri handiagoekekin ibiltzeko lesio txiki bat dauka, 200 kilokoarekin ibiltzea eragozten ez diena. Txapelketa honetan parte hartzeko ilusioa eta gogoia erakutsi du, eta benetan, momentu oso berezia izango da», azaldu du Joxe Anjel Sarasola herri kirolletako aditu eta TOLOSALDEKO ATARIAREN kolaboratzaileak.

Goenatxo I.aren omenaldian bezala, oraingo txapelketan hiru minutuko bi txanda izango ditu harri jasotzaile bakoitzak.

Xareari aitortza Iruran

Irura eta xarearen arteko loturak ehun urte bete dituela eta, hainbat ekitaldi antolatu dituzte, tartean goi mailako partidak

Imanol Garcia Landa Irura

Ehun urte igaro dira xarea eta Irura elkar lotu zirenetik, eta herrian mendeurrena ospatzeko ekitaldiak antolatu dituzte. Gorka Murua alkateak azaldu duenez, «xarea kirol berezia da herrian, eta Irurako ondare izatera iritsi da».

Xareak herriko hainbat eragilerengan eragina izan duela gaineratu du Muruak, eta ospakizun hauetan ere eragile horien parte hartzea bultzatu dela azaldu du. Esaterako, Irurako Ikastolak zenbait ekitaldi antolatu ditu egunotan. «Herriaren ikurra ez ezik, gure ikastolarena ere badelako», esan du Ainhoa Artola irakasleak. Horma irudiak egin dituzte, Jesus Mari eta Pello Arsua-ga xaregileekin solasaldia izan zuten atzo, eta gaur partida batzuk antolatu dituzte ikasleen artean, eta bertan Joxi Lopetegi eta Julen Apeztegia herriko xare jokalarien laguntza izango dute.

Ametsa Pilota Elkartek hainbat ekitaldi antolatu ditu. Bate-tik, argazki erakusketa egingo da plazako herri-eskolako aretoan, datorren astean ikusgai izango dena. Bestetik, abenduaren 12rako mahai ingurua antolatu dute xareak Iruran izan duen eta duen historiaren berri emateko. Solasaldian parte hartuko dute Jesus Mari Arsua-ga, Iñax Iturbe,



Marimi Ugalde, Ainhoa Artola, Gorka Murua eta Mikel Uzkudun. I.G.L.

Joxi Lopetegi eta Mikel Uzkudunek.

Abenduaren 14a izango da egun nagusia. Goizean goizetik hasiko dira Ametsa Trinketearen ekitaldiekin. Xare eskolan dabil-tzan umeen topaketa batzuk antolatu dituzte. «Egun eskolan 70 haur dabil-tza, 50 mutil eta 20 neska, eta trinketearen jokatu-dute, mailaz maila antolatuta», esan du Ametsa Pilota Elkarteko Mikel Uzkudunek. Aldi berean, plazako herri-eskolan xareak eta pilotak egiteko tailerrak izango dira. Eguerdia aldera trinketetik elizaren arkupera joango dira, eta xarearen hastapeneko partida batzuk irudikatuko dituzte umeekin. «Arkupeetan jokatzeko hasi eta gero zer bilakaera izan duen xareak Iruran sinestea zai-

la izan daiteke; hori da irudikatuko dena», esan du Uzkudunek.

Arratsaldean, egun ikusi daitekeen maila altueneko xare partidak jokatu dira Irurako trinketearen. Iparraldeko lehen mailako ligaren finalerdiak jokatu dituzte. «Beraz, munduko zortzi xarelari onenak izango dira Iruran», nabarmendu du Uzkudunek. Joxi Lopetegi irurarrak Funosasekin osatzen duen bikotea bertan izatea espero dute. «Egun Lopetegi eta Funosas ligako lehen postuan daude, beraz espero dugu finalerdietan izatea», esan du Uzkudunek.

Oraindik guztiz lotuta ez bada-gere, beste partida bat ere ikusgai izan daiteke egun horretan Iruran. Izan ere, Iparraldean kimu mailako txapelketan parte

hartzen ari diren Ametsa elkar-terko bi bikote finalerdietara iritsi dira. Elkarren aurka jokatu behar dute, eta finalerdia Senperen jokatzekoa bada ere, Iruran jokatu dezatela eskatu dute Ametsa elkartetik. Xare partiden ondoren, Irurako Udalak oroigarriak banatuko dizkie munduko txapelketetan parte hartu duten irurarrak pilotari guztiei, zein Ametsa Pilota Elkarteari.

Irura Bizi elkartek ere parte hartu du ekitaldien antolakuntzan. Bertako kidea den Marimi Ugaldek azaldu duenez, «parte hartu nahi izan dugu bultzatuz, indartuz, lagunduz, jai hau handiagoa izateko». Hori horrela, pilota partiden ondoren, Tolosako Udaberri dantza taldearen emenaldia izango da trinketearen bertan. Gero herri afaria egingo da, eta horretarako txartelak salgai daude trinketearen eta liburutegian. Afalostean, Erromeria.eus-ekin dantzaldia izango da.

Irurako alkateak, bestalde, xarearen historiari buruzko liburuxka bat argitaratuko dela jakinarazi du. Jon Leunda kazetaria da egilea, eta liburuxka herriko etxeetara banatuko da urtea bukatu baino lehen. Horrez gain, aipatu du mendeurrenaren ospakizunerako sortutako logoa Ainhoa Ugalde herritarrak egin duela.

EGITARAUA

Xareak Iruran mendeurrena egin duela ospatzeko egitarau zehatza: www.ataria.eus

Gogor eutsiko diogu

Aurreko astean sailkapeneko hirugarren postuan kokatzen den Idiazabalen aurka berdinketa lortu ostean, gogo handiz hartu genuen Gipuzkoako Kopako erronka. Izan ere, Kopako zozketak berriro ere goierritarren aurka lehiatu gintezen nahi izan zuen.

Beraz, ilusioz eta indarrez abiatu ginen Tolosatik eta bidean, betiere gure *playlistak* lagunduta, gure animoak handitzen joan ziren. Modu horretara, idiazabaldarren zelaira iritsi eta beroketa eginda, guretzat oso gogo-

rra izan zen partida bati eman genion hasiera. Aurreko asteko emaitza kontuan hartuta, bagenekien, gure artean presioa eginenez, aurkaria indar handiz arituko zela lehen minututik.

Eta ez genbiltzan oso oker. Idiazabalgo taldeak oso gainean defendatu zuen partidako lehen zatian eta zaila izan zen zelai erdia zeharkatzea. Zailtasun horri defentsako akats batzuk gehituta, lehen bi golak sartzea lortu zuen aurkariak. Amore eman ez bagenuen ere, gure animo eta sentsazioak okertuz joan ziren eta jarrera horrek ez zigun batere



Aulkitik
Garazi Arregi
TEEP Samaniego Orixe

mesederik egin. Gainera, taldeko zenbait jokalariren azken momentuko bajak kontuan hartuta, fisikoki maila altua eskatu zigun partida bat izaten ari zen. Horrela, markagailuko 2 eta 0-ari eusten saiatu ginen arren, aurkariaren hirugarren gola iritsi zen lehen

zatia amaitzeko minutu gutxiren faltan.

Atsedenalditik bueltan, entrenatzaileen hitzek behar genuen bultzada eman ziguten eta lehen zatian baino hobeto aritu ginen. Arrisku aukerak eragin eta iritsiera gehiago izan genituen. Horrez gain, Harrik eta Garik bosteko jokoagatik egin zuten apustu eta erabaki horrek gol aukerak handitzea ahalbidetu zigun. Dena den, behin aurkariaren atera iritsita, ez genuen jaurtike-tarekin asmatzen.

Partidako azken minutuetan ez ziren aldaketa gehiegi gertatu eta, beraz, markagailua 3 eta 0-ekoarekin mantendu zen azken txistua entzun genuen arte.

Lan egiten jarraitzeko ordua

guretzat. Kontziente gara oraindik hobekuntza asko egin behar ditugula, batez ere, erasoan. Hortaz, gure ahultasunak landu eta defentsan indarra hartzen jarraitzea da gure asmoa. Gogor entrenatzen ari gara azken entrenamenduetan eta ziur gaude inplikazio, konpromiso eta lan guzti horrek, lehenago ala beranduago, bere emaitzak emango dizkigula.

Hurrengo asteari dagokionez, Sanpedrotarra taldea izango dugu aurrez aurre. Sailkapeneko bigarren postuan kokatzen bada ere, ez dugu gure gaitasunen inguruan zalantza egiten eta dena emango dugu hiru puntuak etxera ekartzen saiatzeko.

Aupa neskak!



OSTEGUNA, 2019KO ABENDUAK 5
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidana-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



berria

BERTAKO
HEDABIDEAK



OSTEGUNA 05

AGENDA

Deialdiak

Zizurkil. VI. Pello Mari Otaño Bertso paper lehiaketako sari banaketa eta ondoren bertso afaria Iriarten.

Amsa-Villabona. Haurrentzat *Har-ran sorginduaren bila* filmaren proiektzioa, eta ondoren txokolate jatea, gaztetxean, 17:30ean.

Ikaztegieta. Hitzolariak, Herrigintza elkartean 18:30ean, afari-merienda batekin.

Tolosa. Gabonetako argiak piztuko dituzte Tolosa CF Gimnastikako neskak, Gaztelako atean, 19:00etan.

Tolosa. Zine forum saioa: *Los clowns* filma, 19:15ean eta 21:45ean, Leidorren antzokian.

Tolosa. Olentzeroren Basoan izen ematea, Bidaiarien Txokoan, 17:00etatik 20:00etara.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko

16:30. Ur etalur

17:30. Gaurkoan Tolosaldeko

21:30. Gaurkoan Tolosaldeko

22:00. Urrutiajunbe

22:30. Denbora da poligrafo bakarra

23:30. Gaurkoan Tolosaldeko

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Edurne Bengoetxea Aiestaran. Kale Nagusia, 7. 943/670648.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Amarotz auzoa, 9. 943 67 5118.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Iker Ibarluzearen eguraldi iragarpena, agenda, Quark zientzia atala, administrazioari buruz Tolosaldea LHko ikasleekin, Baserri-tik eta amaitzeko eskualdeko musikari batek eginiko proposamen musikalak.

11:00. Eutsi goiari. Kirolak, Imanol Garcia Landarekin.

12:00. Entzuteko jaioak. Musika saioa.

16:00. Zebrabidea. Arrosa sareko magazina.

18:00. Goizeko saioen onena.

21:00. Mestibull. DJ Bullekin.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Egunekeo erdiko orduetan ostarte batzuk irekiko diren arren, goizean eta azken orduetan zerua estalirik egongo da, tantaxkaren bat erortzea baztertu gabe. Haizeak iparretik joko du eta termometroak 10-12 graduan joko du goia.



Bihar. Giro argi goa. Azken orduetan zerua estalita geratuko den arren, gainontzeko orduetan ostarte zabalak izango dira. Haizeak goizean hegotik joko du, arratsaldean ipar-mendebaldetik finkatuz. Termometroek pixka bat igo eta 11-13 gradu bitartean joko dute goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.



ATXAGAREN IRAKURRALDIA

Duela urte batzuk euskal literatura zaharrari buruzko hitzaldia eman zuen Martuteneko kartzelari Bernardo Atxagak. Bada, ekitaldi hura gogoan, irakurraldi dramatizatua prestatu du idazle asteasuarrak, orduan izandako bizipenak kontuan hartuz, eta atzo, Euskararen Nazioarteko Egunaren harira prestatutako egitarauan, Tolosako Topic-en ikusteko aukera izan zen, Jose Kruz Gurrutxaga aktorearen laguntzarekin. LEYRE CARRASCO

ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...

www.ataria.eus - 107.6 fm -

Zu zeu zara zure influencer bakarra.



Audi A4 Avant berria.

Autowag Tolosa

Usabat poligonoa, z/g
20400 Tolosa
Tel. 943 67 35 81

Audi A4 Avant Advaned 30 TDI 100 Kw (136 CV) S tronic. CO2 isurketak (g/km): 137-151 (NEDC: 104-113). Kontsumoa (l/100 km): 5,2-5,8.

